

## BERARIAZKO SARBIDE-PROBA

### **Kirol-urpekaritza eskafandrarekin** Erdi-mailako zikloa - Hasierako zikloa

Sarrera-proba egin ahal izateko, parte-hartzaileek **lehen mailako urpekari** titulua edo baliokidea aurkeztu beharko dute.

Proba gainditzeak honako gaitasun profesionala egiaztatzen du: “Murgiltzeak egiteko teknikak menderatzea eskafandra autonomodun (SBA) eta/edo sistema erdi autonomodun (SBSA) kirol-urpekaritzako sistemak erabiliz, airea edo nitroxa arnastuta, 5 atmosferara arteko gehieneko presioarekin, murgiltze batean kirol-urpekari bati laguntzeko eta bere erreskatean laguntzeko, ezbeharren batek haren bizitza arriskuan jarriz gero”.

Berariazko probak gainditzeko, ebaluazio positiboa lortu behar da ebaluazio-irizpide guztietan.

Estatu osoan izango du eragina, eta 18 hilabeteko indarraldia.

Berariazko proba egitetik **salbuetsita** egongo dira honakoa egiaztatzen duten kirolariak (nahiz eta izen-ematea eta dagokion tasaren ordainketa egin beharko duten):

1. **Goi-mailako kirolaria edota errendimendu handikoa** izatea kirol-urpekaritza eskafandra autonomoarekin modalitatean.
2. Urpeko Jardueren Espainiako Federazioak emandako **Hiru izarreko urpekariaren** egiaztagiria izatea.

Probak honako **atalak** ditu:

- Nahasturen analisisa.
- Ekipamendua prestatzea.
- Konpasaren irakurketa.
- Murgiltze bat planifikatzea.
- Larrialdi-protokoloak deskonpresioa izan duen murgiltze batean.

## 1. NAHASTUREN ANALISIA

Hautagaiari emango zaizkio NAA (nitrox aire aberastua) nahasturaz betetako botila bat, oximetroa, manometroa, etiketa, errotulagailua eta urpekaritzako ordenagailu bat.

Nitrox aire aberastua (NAA) duen botila bat analizatu eta etiketatuko du, prezioa eta oxigeno-portzentajea identifikatuz, eta bere gehieneko sakonera operatiboa eta airez betetako baten sakonera baliokidea.

1. Hautagaiak presioa eta oxigeno-portzentajea neurtuko ditu.
2. Hautagaiak etiketa bete eta ordenagailuan sakonera doituko du.
3. Hautagaiak epaimahaiaren galderei erantzungo die, botilako gas-nahasturaren sakonera operatibo eta baliokideei buruz.

### ✓ **Ebaluazio-irizpideak**

- a. Botilaren presioa neurtu da ur-azaleko manometro batekin.
- b. Oxigeno-portzentajea neurtu da oximetroarekin, berau inguruneko airearekin kalibratu ondoren.
- c. Oxigeno-portzentajearen neurria nahastura egin duen pertsonarekin kontrastatu da, balizko ezberdintasuna kontuan hartuz.
- d. Botilako gas-nahasturaren sakonera operatibo eta baliokideak kalkulatzeko hartutako erabakiak azaldu dira.
- e. Botilako etiketa bete da, honakoak adieraziz: urpekariaren izena, data, NAA mota eta gehieneko sakonera operatiboa.
- f. Nahasturaren datua doitu da urpeko ordenagailuan.

## 2. EKIPAMENDUAREN PRESTAKETA

Ekipamendu hau aurkeztuko zaio hautagaiari: bi botila, oinarrizko erreminta-sorta, juntura-sorta bat, ontziz aldatzeko gailua, ur-azaleko manometroa, konpas bat, erreguladore bat, manometro bat, oktopus bat, txaleko egonkortzailea eta erreguladorea lotzeko zorroa eta zingiladun txaleko egonkortzailea, balbulak eta trakea (desmuntatuta).

Hautagaiak urpekaritza-ekipamendu pertsonala berraztertu eta prestatuko du, fabrikatzaileak zehaztutako mantentze- eta konponketa-teknikei jarraiki.

- ✓ Bi botilen arteko ontzi-aldaketa egingo du, presioak berdindu arte.
- ✓ Balbulak eta trakea muntatu beharko dizkio txaleko egonkortzaileari.
- ✓ Zingila muntatu beharko dio txaleko egonkortzaileari, eta, ondoren, botilan estutu.
- ✓ Manometroa, oktopusa eta txaleko egonkortzailea eta erreguladorea lotzeko zorroa elkartu beharko ditu.
- ✓ Botilaren txorrota ireki beharko du, ihesik dagoen begiratu eta horiek saihesteko neurriak hartu.
- ✓ Erreguladore baten etengabeko jarioa doituko du.
- ✓ Urpeko konpas baten funtzionamendua egiaztatu beharko du.
  
- ✓ ***Ebaluazio-irizpideak***

Hautagaiak ontziz aldatzeko gailua erabili du airea botila batetik bestera eramateko, eta txorrotak dagokien ordenan ireki eta itxi ditu.

Balbulak muntatu eta kendu ditu, baita goi-presioko zorrarako lotura ere, atalen garbitasuna eta txaleko egonkortzailearen junturen egoera egiaztatuta.

Botilari eusteko zingila muntatu dio txaleko egonkortzaileari.

Botilaren eta erreguladorearen txorroten sistemak (DIN edo INT) egiaztatu ditu.

Posizio zuzenean kendu eta jarri du botilaren txorroten nukleoa.

Erreguladorearen lehenengo gorputzean lotu ditu manometroaren zorroak, oktopusa eta txaleko egonkortzailearen puzgailua, irteerako presioen eta erabiltzeko jarrerarik erosoaren arabera. Junturen egoera ere egiaztatu du.

Aire-ihesa konpondu du eskafandraren muntaketan, eta, horretarako, loturak eta junturak egiaztatu ditu.

Erreguladore baten etengabeko jarioa konpondu du, bigarren etapa doituta.

Etengabeko jario-egoera konpontzeko egindako doikuntzak azaldu ditu.

Urpeko konpas baten funtzionamendua egiaztatu du. Horretarako, paper batean seinale batzuk erabilia, zehaztutako norabideen koherentzia egiaztatu du, baita gorputz magnetiko baten hurbilketaren ondorioak ere.

### **3. KONPAS IRAKURKETA**

Argazki batzuk erakutsiko zaizkio hautagaiari. Horietan, koro mugikorrek urpeko konpas baten koroaren zenbait antolamendu ikusiko ditu. Ondoren, idatziz erantzun beharko die irudi bakoitzean konpasaren posizioa interpretatzeko egingo zaizkion galderei.

Urpeko konpas baten informazioa irakurri du, eta zehaztutako prozedurei jarraiki egiaztatu du haren funtzionamendua.

#### **✓ *Ebaluazio-irizpideak***

- Koroa ezarrita, hautagaiak koro mugikorrek konpas baten fede-marrak adierazitako norabidea irakurri du.
- Koroaren posizioaren bitartez, norabide bat zehaztu du konpasean. Halaber, bere erabilera azaldu du, baita fede-marra bere alderantzizko norabidean nola orientatu behar den ere.

#### 4. URPERAKETA PLANIFIKAZIOA

Hautagaiak 40 metroko sakonerara jaisteko urperaketa planifikatuko du. Horretarako, airea edo nitroxa erabiliko du, eta nahastearen osaketa, botilaren tamaina eta igoera-planaren profila zehaztuko ditu. Era berean, oxigenoz aberastutako airea erabiltzearen arriskuak murrizteko prozedurak baliatuko ditu.

- Idatzizko proba. Hautagaiak 10 galderaz eta lau problemaz osaturiko galdetegiari erantzungo dio.

##### ✓ ***Ebaluazio-irizpideak***

- a. Hautagaiak azaldu du nola sortzen den goi-presioen gehiegizko oxigenoa, eta konbultsio-krisi baten faktore-eragileak, zantzuak eta faseak aipatu ditu.
- b. Halaber, azaldu ditu EAN 40 edo gutxiagoko nahasketa erabilitako urperaketa batean oxigeno-intoxikazio zorrotza jasateko arrazoiak eta horren ondorioak.
- c. Ekipamendu bat oxigeno-zerbitzuan egotearen esanahia azaldu du, baita noiz den beharrezkoa ere.
- d. Oxigenoak eragindako deflagrazioaren arrazoiak azaldu ditu.
- e. Sakonera jakin batean urperatzeko EAN-nahasketaren osaera egokia kalkulatu du.
- f. Ondorengoa zenbatetsi du urperaketa sinple bat egiteko oinarritzko egoeran: gehieneko esposizio-tartearen ehunekoa, dagokion taula eta urperaketa-datuak erabilita.
- g. Ondorengoa zenbatetsi du elkarren segidako urperaketak egiteko egoeran: gehieneko esposizio-tartearen ehunekoa, dagokion taula eta bi urperaketen zein azalera-tartearen datuak erabilita.

## **5. LARRIALDI PROTOKOLOAK DESKRONPRESIODUN URPERAKETAN**

Deskronpresiodun urperaketa egiteko ezaugarriak zehaztu ditu. Halaber, baldintzen arabera zuzendu du igoera-plana, eta larrialdi-protokoloak xehatu ditu.

- Idatzizko proba. Hautagaiak 10 galderaz eta lau problemaz osaturiko galdetegiari erantzungo dio.

### ✓ ***Ebaluazio-irizpideak***

- a. Hautagaiak ur gainean urpekari baten kontsumoa alda dezaketen arrazoiak azaldu ditu.
- b. Deskronpresiodun urperaketa egiteko beharrezkoak diren baliabideak zerrendatu ditu.
- c. Deskronpresiodun urperaketa egiteko ezinbestekoak diren betekizunak zerrendatu ditu.
- d. Mikroburbuilen ondorioak nola arindu azaldu du.
- e. Hotza, esfortzu fisikoa eta hiperbentilazioa daudenean igoera-plana nola zuzendu azaldu du.
- f. Abiadura desegokian igotzen denean igoera-plana nola zuzendu azaldu du.
- g. Azaldu du nola jokatu behar den urperaketa-profilean aurreikusitako deskronpresio-geldialdi bat egiten ez denean.